

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LANTZIEGO, BILAR ETA KRIPANGO UDALEN ELKARTEA

Idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzea

Alkatetzaren Ebazpena

Uztailaren 29ko 1732/1994 Errege Dekretuak, gaikuntza nazionalako toki administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeari buruzkoak, xedatutakoaren arabera, Lantziego, Bilar eta Kripango udalen elkarteko lanpostu hori gaikuntza nazionala duten toki administrazioko funtzionarioentzat gordeta dago, idazkaritza-kontuhartzailatza azpieskalako funtzionarioentzat, eta eragotzi gabe hargatik irailaren 18ko 1174/1987 Errege Dekretuaren lehen xedapen iragankor 2 c) eta d) puntuetan xedatutakoa.

Lanpostu hori hutsik geratuko da laster, titularra 2015eko abenduaren 31n kenduko baita.

Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 21.h) eta 92 bis artikuluetan xedatutakoa atxiki zaio.

Honen bidez, hau ebatzi dut:

Lehenengoa. Hamabost egun balioduneko epea irekitzea, dagokion iragarkia ALHAOn argitaratzen den egunetik hasita, hautagaiek eskaerak aurkezteko; xedea da Lantziego, Bilar eta Kripango udalen elkarteko idazkari-kontuhartzaile lanpostua behin-behineko izaeraz betetzea. Eskaerak dekretu honi erantsita dagoen ereduaren arabera egin behar dira.

Gaikuntza nazionala duen toki administrazioko funtzionario bat izendatuko da, lanpostuaren azpieskala eta kategoria bereko hautagaiek lehentasuna izanik; kontu hori behar den moduan egiaztatuko da.

Hautagai bat baino gehiago aurkezten badira, honako hau proposatuko da izendatua izateko hautagaitzat: puntu gehien lortu duena parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioak argitaratutako azken merezimendu lehiaketan.

Bigarrena. Jakinarazten da idazkari-kontuhartzaile lanpostuak 4. hizkuntza eskakizuna duela esleitura, derrigortasun datarik gabe. Lanaldia osoa izango da.

Hirugarrena. Aukeratutako hautagaiaren behin-behineko izendapena proposatzea Arabako Foru Aldundiari.

Laugarrena: Ebazpen honen berri ematea udalbatzari, egiten duen lehenengo bilkuran.

Lantziego, Bilar eta Kripango, 2015eko urriaren 5a

Lantziego, Bilar eta Kripango udalen elkarteko alkateak:

Lantziegokoa

GORKA MAULEÓN OLALDE;

Bilarkoa

GERARDO OLANO MEDRANO;

Eta Kripangoa

JOSEBA FERNÁNDEZ CALLEJA

Eranskina

“jaunak/andreak, NANdunak eta jakinarazpenetarako helbi-
dea: duenak, udalerrria:

telefonoa:, gaikuntza nazionala duen funtzionarioak,
azpieskalakoak, eta egun toki erakundean lanpostua
betetzen duenak, ondokoa

Adierazten du:

Jakin du Lantziego, Bilar eta Kripango udalen elkarteko idazkari-kontuhartzaile lanpostua hutsik geratuko dela laster, titularra 2015eko abenduaren 31n kenduko delako, eta lanpostu hori behin-behineko betetzeko aukera dagoela, uztailaren 29ko 1732/1994 Errege Dekretuak, gaikuntza nazionalako toki administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeari buruzkoak, 30. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Betetzen dituela, bere ustean, lanpostu horri dagozkion eginkizunak behar bezala betetzeko eskatzen diren betekizunak, eta, beraz, indarrean dagoen legeriaren arabera eta dagozkion izapideak betez,

Eskatzen du:

Parte hartzea Lantziego, Bilar eta Kripango udalen elkarteko idazkari-kontuhartzaile lanpos-
tua behin-behineko izendapenez betetzeko prozeduran.

Honekin batera, ondoko agiriak aurkezten dira:

NANaren fotokopia

Gaikuntza nazionalako funtzionarioa dela egiaztatzen duen agiria.

....., 2015ekoarena.

Izenpea”